

# UZTARO

giza eta  
gizarte-zientzien  
aldizkaria

1999ko  
harpidetza-saria  
2.800 pta.

4 zenbaki urtean

antropologia

ekonomia

filologia

filosofia

ikasketa klasikoak

kazetaritza

linguistika

pedagogia

psikologia

soziologia

zuzenbidea

UZTARO aldizkaria jaso nahi dut.

Izen-deiturak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_ Posta kodea \_\_\_\_\_

Probintzia \_\_\_\_\_ Tel. \_\_\_\_\_

**Ordainketa:**

Banku edo Aurrezki-Kutxa \_\_\_\_\_  
(20 zenbakiak)

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

Bialdu harpidetza-txartela:

UZTARO ALDIZKARIA

Udako Euskal Unibertsitatea

Concha Jenerala 25, 4. 48010 BILBO

Tel. (94) 4217145; Fax-zk. (94) 4214679. E-mail: bulegoa@ueu.org



## AKINTZA HEC

**B**este zenbait eskualdetan (batez ere Estatu Batuetako mendebaldean) ikusi ahal izan denez, ibaira erortzen diren zuhaitz hilek askotan egur-presak eratzten dituzte, eta hauek sekulako garrantzia dute ibai-komunitateetan. Alde batetik, ubidea egonkortu egiten dute, sedimentu xehea metatu, eta habitat berriak eskaintzen dizkiete bizidunei. Horrez gain, ibaira iristen den orbela atxikitzen dute, eta hau erreka orno-gabeen bazka nagusia denez, egur-presa ugariko erreketan orno-gabe gehiago izaten da, eta arrainen ekoizpena handiagoa da. Azkenik, egur-presen inguruan sortzen diren putzu eta ur geldoak dira bizidunek uholdeei aurre egiteko duten babesleku nagusia eta, ondorioz, egur-presak ezabatzeko uholdeek kalte handiagoa eragiten dute ibai-komunitateetan.

Egurra hain garrantzitsu izan arren, giza ekintza askoren ondorioz (batez ere basoen mozketa eta enborren ustiaketa) gero eta enbor gutxiago geratzen da gure ibaietan, eta hauen dibertsitatea eta funtzioa kaltetu egin dira. Atal honi buruzko ikerketa gehienak Ipar Amerikan eta Zeelanda Berrian egin dira, baina ezezaguna da zenbat txirotu diren Europako

A. Elosegil





# Egur-metaketak ibaietan

ibaiak egurraren ezabaketaren ondorioz. Hain zuzen, hau da Hego Europan honi buruz egin den lehen ikerlana.

Proiektu honek bi helburu nagusi ditu: batetik, ikustea zenbat enbor dagoen Euskal Herriko ibaietan, eta zein den ubidearen topografiak eta basoaren kudeaketak honen gainean duen eragina. Eta bestetik, ibaien dibertsitate morfologikoan, habitat-ugaritasunean, ornogabe-komunitateetan, eta hauek uholdeei aurre egiteko duten gaitasunean egurrak zer garrantzi duen behatzea. Ikerketa Aguera ibaian ari gara egiten, berau baita Biz-

kaiko ibaien artean hobekien kontserbatuta dagoena.

Ikusi ahal izan dugunez, pinudi zein eukaliptadien pean eta haltzadi gazte-  
pean dauden ibaialdeek harizti helduen pean daudenek baino egur gutxiago izan ohi dute eta enborren eragina txikiagoa da.

Egurraren eragina aztertzeke, bi errekastotan zegoen egur guztia kendu dugu, eta ikusten ari gara zein eragin izan duen horrek ubidearen substratuan, ibaiak orbela atxikitzeke duen gaitasunean, mikrohabitat-ugaritasunean, eta ornogabeek uholdeei aurre egiteko duten gaitasunean.

Egurrik gabeko ibaialdeek kontrolaldeek baino askoz sedimentu gehiago galdu dute, habitat-dibertsitatea murriztu egin zaie, eta ornogabe-komunitateak ere aldatu egin dira. Oraindik ikusteke dago uholdeen eragina handiagoa ote den egurrik gabeko ibaietan.

Proiektu honen emaitzekin hobeki jakin ahal izango da zein den basoaren ustiaketak ibai-komunitateetan duen eragina, eta inpaktu hori murrizteke bideak bilatu ahal dira. Euskal Herriko ibaien kalitatea hobetzekotan, ezin gara konformatu uraren kalitatea hobetzearekin. Horrez gain, ikusi behar da zein egoeratan dagoen bizidunen habitat fisikoa, eta nolakoa den ibaiaren funtzionamendu hidrologikoa. Gisa honetako ikerketek asko lagun dezakete gure ibaien egoera eta funtzionamendu naturala nolakoa zen ezagutzeko garaian eta, ondorioz, kaltetuta dauden ibaiak leheneratzeko garaian.



A. Elosegi



Erreskasto bat enborrak kendu aurretik (goian) eta ondoren (ezkerrean). Ubidea asko higatu da, sedimentu xehea desagertu, eta animalientzako babesguneak galdu egin dira.

- ✗ **Proiektuaren izenburua:** Egur-metaketek ibaietan duten dinamika eta funtzioa: arroko landarediarekiko erlazioa.
- ✗ **Helburua:** Euskal Herriko ibaietan zenbat enbor dagoen ikustea eta ubidearen topografiak eta basoaren kudeaketak honen gainean duen eragina aztertzea.
- ✗ **Finantziazioa:** DCICYT, EHU.
- ✗ **Zuzendaria:** Jesús Pozo.
- ✗ **Ikerketa-taldea:**  
Zuzendaria: Jesús Pozo, Ekologian katedraduna.  
Irakasleak: Ana Basaguren eta Arturo Elosegi.  
Bekadun doktorea: Bosco Imbert.  
Bekadun doktoregaiak: Jon Molinero,  
Jose Manuel Gonzalez eta Joserra Diez.
- ✗ **Departamentua:** Landare-Biologia eta Ekologia Saila.
- ✗ **Zentrua:** Leioako Zientzi Fakultatea.